



SAIOA INFORMA
SAIOA INFORMAZIOA

**Cambios en ayuda
de tercera persona
BLP aitortzeko
aldaketak**

pg. 4 or.



**El deporte
en Gorabide**

**Kirola
Gorabiden**

pg. 5 or.



**Hermanos
menores**

**Adingabe
neba-arrebak**

pg. 7 or.

Etxebizitza berria Bilbon

*Erabiltzaile talde batek
bere autonomia handitzen du
Bizkaiko Foru Aldundiarekin
lankidetzan martxan jarritako
zerbitzu berriari esker*

Nueva vivienda en Bilbao

*Un grupo de personas usuarias
aumenta su autonomía con un
nuevo servicio puesto en marcha
en colaboración con la
Diputación Foral de Bizkaia*

**Asamblea General de socios y socias
de Gorabide, el miércoles 24 de abril**

**Gorabideko bazkideen Batzar Nagusia,
apirilaren 24a asteazkena**



Juancarrek, Belindak eta Begok etxebizitza berria bisitatu zuten, Andres entrenatzen ari zen bitartean (ikusi 5. or.)

Adimen desgaitasuna duten lau pertsona orain autonomoagoak dira, Bilboko etxebizitza berri batean

Zerbitzu berri hau martxan jarriko da datorren apirilaren 15ean, Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmen bati esker

Apirilaren 15ean, Andresek, Begok, Belindak eta Juancarrek pisua estreinatuko dute. Baina bizitzeko lekua aldatzeaz gainera, bizimodua ere aldatuko dute: autonomia eta independentzia handiagoa izango dute. Elkarbizitzako talde handiagoak eta laguntzarako profesional gehiago dituzten zerbitzuetatik datoz, eta horiekin bizi izan dira 8 edo 9 urtez. Horrela, ezaugarri horiek dituen zerbitzuaz baliatu ahal izateko beharrezko ikaskuntza jaso dute. Horregatik, pozik daude *“bizimodua aldatuko”* dute-lako eta *“pixka bat urduri”* daude.

Komunitatean integratzea

Etxebizitza berri hau Bizkaiko Foru Aldundiak laga du eta berak egingo ditu etxebizitzaren beraren mantentze lanak. Bilbon dago, erdigunean dagoen

etxebizitzaren eraikin batean; horrek, beraz, komunitatean parte hartzeko bide ematen du. Helburua da behin betiko etxebizitza izatea, eta bertan bizitzeko aldirik gehiena igarotzea. Hala berretsi du Begok: *“hemendik bakarrik joango nintzateke nire mutilagunarekin bizitzeko”*. Belindak eta Juancarrek ez daukate arazo hori, bikote direlako.

Zerbitzu berri honek aukera emango die modu autonomoagoan bizitzeko, Gora-bideko bi monitoreren laguntzarekin, eguneko ordu batzuetan. Belindak esan duen bezala, *“gauzak laguntza gutxiagorekin egingo ditugulako eta arduratsuagoak izango garelako”*. Baina hori guztia ez da hain garrantzitsua, *“independentzia handiagoa izateko”* gogoak kontuan hartuta.

Laguntza aurrera egiteko

Ez dituzte zalantza handirik, pixkanaka aurrera egiten joango direla badakitelako, monitoreen eta Salazar Jenerala gertuko etxebizitzaren (Begoren ahizpa bizi den) laguntza izango baitute. Zalantza batek baino ez du kezkatzen taldea: Zelan banatuko dituzte logelak?



IRAKURKETA
ERRAZA

Andrés, Bego, Belinda eta Juancar Bizkaiko Foru Aldundiak Gora-bideri lagatuko etxebizitza batean biziko dira. Orain independenteagoak izango dira eta emozio eta urduritasun handiagoak izango dituzte. Badakite arduratsuagoak izan beharko dutela, baina horren beldur ez dira.



Bego, Juancar y Belinda visitaron su nueva vivienda, mientras Andrés entrenaba (ver pág. 5)



Cuatro personas con discapacidad intelectual aumentan su autonomía en una nueva vivienda en Bilbao

El nuevo servicio entrará en funcionamiento el próximo 15 de abril, gracias a un convenio de colaboración con la Diputación Foral de Bizkaia

El 15 de abril, Andrés, Bego, Belinda y Juancar estrenan piso. Pero más allá de cambiar de lugar de residencia, van a modificar su forma de vida, ganando en autonomía e independencia. Proviene de servicios con grupos de convivencia más numerosos y mayor presencia de profesionales de apoyo, donde han vivido 8 ó 9 años, adquiriendo

el aprendizaje necesario para poder acceder a un servicio de esas características. Por eso, coinciden en la emoción ante *“un cambio de vida”*, y reconocen que tienen *“un poco de nervios”*.

Integración en la comunidad

Esta nueva vivienda, cedida por la Diputación Foral de Bizkaia, que también se ocupará de su mantenimiento, está situada en Bilbao, integrada en un céntrico edificio de viviendas, lo que favorecerá su participación en la comunidad. El objetivo es que se convierta en su hogar definitivo, en el que pasen la mayor parte del tiempo de su vida. Y así lo corrobora Bego: *“Sólo me iría de aquí para vivir con mi novio”*. Belinda y Juancar no tienen ese problema, porque son pareja.

Este nuevo servicio les va a permitir vivir de una manera más autónoma, con el apoyo de dos monitoras de Gorabide algunas horas al día. Lo que más les preocupa es *“que ahora vamos a tener que hacer más cosas solos, y ser más responsables”*, como augura Belinda. Pero todo eso queda en un segundo plano ante las ganas de *“tener más independencia”*.

Apoyo para ir avanzando

Tampoco tienen grandes dudas, porque saben que irán avanzando poco a poco con el apoyo de las monitoras y de la cercana vivienda de General Salazar donde, además, vive la hermana de Bego. Sólo hay una duda que preocupa al grupo: ¿Cuál será el reparto de habitaciones?



Andrés, Bego, Belinda y Juancar van a vivir juntos en un nuevo piso de Gorabide cedido por la Diputación. Ahora van a ser más independientes y sienten emoción y nervios. También saben que van a tener que ser más responsables, pero eso no les da miedo.

OSO GARRANTZITSUA

Hirugarren pertsona baten laguntzaren premia onarpenean aldaketak

Hirugarren pertsona baten laguntza-premia zehazten duen baremoa indargabe geratu da eta, une honetatik aurrera, laguntza hori emateko mendekotasun-egoeraren balorazioa egiteko baremoa baliatuko da. Horrek esan nahi du mendekotasun-egoeraren bat aitortuta dutenek (I, II edo III) 2012ko otsailaren 19tik aurrera automatikoki izango dutela egiaztatuta hirugarren pertsonaren laguntza-premia. Era berean, egun horren aurretik hirugarren pertsona baten laguntza-premia aitortuta izan dutenek aitorten horren ondorio juridiko guztiak jasotzen jarraituko dute.

%75eko edo gehiagoko desgaitasuna

Aldaketa hau garrantzitsua da, batez ere, gaur egun %75eko edo hortik goragoko desgaitasuna duten pertsonentzat, baldin eta mendekotasun-egoera 2012ko otsailaren 19tik aurrera aitortuta badute, baina hirugarren pertsona baten laguntza-premia aitortua izan gabe.

Hala ere, bakoitzaren egoera banan-banan bideratu eta aztertu behar da; izan ere, SAIOA zerbitzuko gizarte-langileak informazio gehiago nahi duen edozein pertsonaren eskura daude.

Mendekotasuna baloratuta ez izateak dakartzan arriskuak

Mendekotasun-egoera baloratuta ez izateak ekar dezake egoitza batean lekurik gabe geratzea eta aldi baterako egon-dirik ezin egin izatea edo prestazio ekonomiko batzuk ezin jaso izatea. Deitu SAIOA zerbitzuari.

Servicio SAIOA Zerbitzua
Centro Ola BBK Zentroa
(Sondika)

Tel. 94 453 90 86

MUY IMPORTANTE

Cambios en el reconocimiento de ayuda de tercera persona

El baremo que determinaba la necesidad de ayuda de tercera persona (ATP) ha quedado derogado y, a partir de ahora, la concesión de ese apoyo se realizará a través del Baremo para la Valoración de la Situación de Dependencia. Esto significa que las personas que tengan reconocido cualquier grado de dependencia (I, II ó III) a partir del 19 de febrero de 2012 pasan a tener acreditada automáticamente la necesidad de ayuda de tercera persona. Y quienes ya tenían reconocida la ATP antes de esa fecha, continuarán disfrutando de todos los efectos jurídicos de ese reconocimiento.

Discapacidad del 75% o superior

Esta modificación puede ser especialmente relevante para aquellas personas que en la actualidad presentan un porcentaje de discapacidad igual o superior al 75% y que tengan reconocida la situación de dependencia a partir del 19 de febrero de 2012, pero que no tuvieran reconocida anteriormente la necesidad de ayuda de tercera persona.

No obstante, cada situación personal requiere de una orientación y estudio individualizado, por lo que las trabajadoras sociales del servicio SAIOA están a disposición de quien quiera ampliar esta información.

Riesgos de no tener la dependencia valorada

No tener valorada la Situación de Dependencia puede suponer quedarse sin plaza en una residencia, no poder acceder a estancias temporales o no percibir ciertas prestaciones económicas. Para recibir asesoramiento, contactar con el servicio SAIOA.

Kirola, gero eta garrantzitsuagoa Gorabiden

Horren erakusle da mahai-tenis egokituko Espainiako txapelkunorde bat, Etxebarriko Herri Krosan hirugarren sailkatu den bat eta federatutako kirol-taldea izatea

Adimen desgaitasuna duten pertsonen kirolaren bidez erakuts dezakete dauzkaten gaitasunak. Baina, kasu askotan, ez da aukera hori posible ikusten, espazio edo laguntza gutxi dagoelako, edo familiarrek zalantzak eta beldurak dituztelako. Oztopo horiek kentzen badira, desgaitasuna duten pertsonen kirola egiteaz gainera, lorpen handiak ere egin ditzakete. Horren adibide da Espainiako mahai-tenis egokituko (7. mailakoa) txapelordea, Andrés Alonso (Dolaretxe Egoitza); Etxebarriko Herri Krosan hirugarren sailkatua, David Cuña (Salazar Jeneralaren etxebizitza), bere lehenengo karrera izanik.

Kirolaren sustapena

Kirola sustatzeko asmoan, Gorabidek Astialdiko Zerbitzuko areto-futboleko taldeekin elkarriketan jardun du, kirol-elkarte batean. Horrela, kideek federazioko lizentzia izango dute eta adimen desgaitasuna duten kirolarientzako Areto-futboleko Euskal Ligan parte hartu ahal izango dute.



IRAKURKETA
ERRAZA

Kirolaren bidez, adimen desgaitasuna duten pertsonen zer lortu dezaketen erakuts dezakete. Ping-pongeko Espainiako txapelkunorde bat, egiten duen lehenengo karreran hirugarren postuan geratu den atleta bat daude Gorabiden, eta talde federatu bat sortzen ari da.



Andrés Alonso (izquierda), subcampeón de España de tenis de mesa



David Cuña (derecha), tercero en el Herri Krosa de Etxebarri

El deporte, cada vez más presente en Gorabide

Un subcampeón de España de tenis de mesa adaptado, un tercer clasificado en el Herri Krosa de Etxebarri y la creación de una agrupación deportiva federada lo demuestran

Las personas con discapacidad intelectual pueden demostrar sus capacidades en el deporte. Pero, en muchos casos, no se contempla esa posibilidad por la falta de espacios o apoyos, o por las dudas y miedos de las familias. Si se eliminan esas trabas, las personas con discapacidad pueden hacer deporte y alcanzar grandes logros. Ejemplo de ello es el subcampeonato de España de tenis de mesa adaptado clase 7 conseguido por Andrés Alonso (Residencia Dolaretxe); o el tercer puesto en el Herri Krosa de Etxebarri de David Cuña (vivienda General Salazar).

Fomento del deporte

En su intención de fomentar el deporte entre las personas usuarias de

sus servicios, Gorabide ha iniciado la conversión de los equipos de fútbol del Servicio de Tiempo Libre en una agrupación deportiva. Así, sus integrantes contarán con licencia federativa y podrán participar en la Liga Vasca de Fútbol Sala para deportistas con discapacidad intelectual.



LECTURA
FACIL

El deporte puede servir para que las personas con discapacidad intelectual demuestren hasta dónde pueden llegar. En Gorabide, hay un subcampeón de España de ping-pong, un atleta que ha quedado tercero en su primera carrera, y se está creando una agrupación deportiva federada de fútbol sala.



Recibimos el Premio CEAJ a los Derechos Humanos

Lo recogió en Zaragoza la autogestora Charo Mauri, acompañada de la voluntaria Alicia García

El Salón de Recepciones del Ayuntamiento de Zaragoza acogió la entrega del Premio Derechos Humanos 2012 que la Confederación Española de Abogados Jóvenes (CEAJ) ha otorgado a Gorabide, a propuesta de la Agrupación de Jóvenes Abogados de Bizkaia.

La autogestora Charo Mauri y la voluntaria Alicia García formaron la representación de la asociación en este acto que contó con la presencia todas las agru-

paciones de jóvenes abogados y Carlos Carnicer, presidente del Consejo General de la Abogacía Española, que premiaron con tres ovaciones el discurso de agradecimiento de Charo.



Charo Mauri recogió el Premio a los Derechos Humanos que nos han dado las asociaciones de abogados jóvenes. Fue en Zaragoza, y le acompañó la voluntaria Alicia García. Todos les aplaudieron mucho.

GG EE CEAJ Saria jaso dugu

Zaragozan hartu zuen saria Charo Mauri autogestoreak, Alicia García boluntarioarekin batera

Zaragozako Udaleko harrera gelan izan zen 2012ko Giza Eskubideen sariaren banaketa. CEAJek (Abokatu Gazteek Espainiako Konfederazioa) saria eman dio Gorabideri, Bizkaiko Abokatu Gazteen Elkarteak hala proposatuta.

Charo Mauri autogestorea eta Alicia García boluntarioa izan ziren Gorabideko ordezkariak ekitaldi horretan; bertan, abokatu gazteen elkarte guztiak izan ziren, bai eta Carlos Carnicer Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren presidentea ere, eta txaloaldi ikaragarriak eskaini zizkieten Charok eskerrak adierazteko emandako hitzaldian.



Charo Maurik Espainiako abokatu gazteek Gorabideri emandako Giza Eskubideen Saria jaso du. Zaragozan izan zen ekitaldia, eta Alicia García boluntarioa izan zen berarekin. Txalo zaparrada izan zuen.

Creando red en Huesca, Pamplona y Burgos

En marzo, profesionales de Gorabide se desplazaron a Huesca, Pamplona y Burgos para crear alianzas y redes con las que poder compartir conocimiento. Un equipo de siete personas se reunió con representantes de Atades en su sede de Huesca y visitaron varios de sus servicios. Posteriormente viajaron a Pamplona para celebrar una reunión conjunta con esa asociación, Ampros (Cantabria), Anfas (Navarra) y Gautena (Gipuzkoa). Por su parte, el contacto realizado en Burgos fue con Aspanias, para conocer su trabajo en el campo de la afectividad y sexualidad.

Sarea sortzen Hueskan, Iruñean eta Burgosen

Martxoan, Gorabideko profesionalak Hueskara, Iruñera eta Burgosera joan ziren, harremanak eta sarea sortzeko, jakintza elkarrekin partekatu ahal izateko. Zazpi pertsona batu ziren Atades-ko ordezkariekin Hueskako egoitzan, eta zerbitzuetako batzuk eza-gutzeko bisita egin zuten. Gero, Iruñera joan ziren eta elkarte horrekin, Amprosrekin (Kantabria), Anfasekin (Nafarroa) eta Gautenarekin (Gipuzkoa) egin zuten bilera bat. Beste alde batetik, Burgosen Aspaniasekin jarri ziren harremanetan, afektibitatearen eta sexualitatearen arloetan egiten duen lana ezagutzeko.

Neba-arreba adingabeentzako tailerrak prestatu ditugu lehenengoz

Ekainean, neba-arreba adingabeentzako tailerra egingo da, lehenengoz. Gorabideko Familiako Esku Hartze Sailak antolatuko du, familiarteko horiek ere adimen desgaitasuna duten pertsonen errealitatean murgiltzeko. Horretarako, desgaitasuna daukaten neba-arrebekin duten harremanari dagokionez daukaten sentsazioaren gainean hausnartuko dute, bai eta familian duten rola, dituzten premien eta zalantza eta kezken gainean ere, besteak beste.

Espazio lasaia izango da, eta, bertan, zenbait kontu partekatu ahal izango dituzte egoera berean daudenekin; izan ere, batzuetan ez dakite zelan transmititu hori familiartekoei. Gainera, beren adinari egokitutako informazioa jasoko dute, neba-arrebekin harreman konstruktiboa zelan mantendu ikasteko. Umeen kasuan (6 urtetik aurrera), joko bidez; gazteen taldeetan (18 urte arte), jarduera eta dinamiken bidez.

Datak

- **Umeak:** ekainaren 7an eta 14an, ostiralez, 18:00etatik 20:00etara.
- **Gazteak:** ekainaren 28an, ostegunetz, 18:00etatik 20:00etara.

Lekua

Poza Lizentziatua, 14-2. (Bilbo)

Izena emateko

Telefonoa: 94 453 90 86
dianacabezas@gorabide.com

Organizamos por primera vez talleres de hermanos menores

En junio, tendrán lugar por primera vez talleres para hermanos y hermanas menores, organizados por el Área de Intervención Familiar de Gorabide con el objetivo de involucrar a esa parte de la familia en la realidad de las personas con discapacidad intelectual, a través de la reflexión sobre cómo se sienten con respecto a la relación con su hermana o hermano con discapacidad, su rol en la familia, sus propias necesidades, dudas e incertidumbres...

Será en un espacio relajado en el que podrán compartir con iguales cuestiones que, a veces, no saben cómo trasladar al resto de la familia, y recibirán información adaptada a su edad sobre cómo relacionarse con su hermano o hermana de manera constructiva. En el caso de niños y niñas (a partir de 6 años), mediante juegos; y en los grupos de jóvenes (hasta 18 años), con actividades y dinámicas.

Fechas

- **Niños y niñas:** viernes 7 y 14 de junio, de 18:00 a 20:00.
- **Jóvenes:** viernes 28 de junio, de 18:00 a 20:00.

Lugar

Licenciado Poza nº 14, 2º (Bilbao)

Inscripciones: Tel. 94 453 90 86
dianacabezas@gorabide.com

LABURRAK BREVES

Participamos en una sesión clínica

El Hospital de Galdakao-Usansolo invitó a Blanca Guinea y Begoña Alday, integrantes del Comité de Ética de Gorabide, a una sesión clínica para que hablaran de las dificultades en la atención sanitaria a las personas con discapacidad intelectual, según el estudio realizado en colaboración con el comité de ética del centro hospitalario.

Saio kliniko batean parte hartu genuen

Galdakaoko Ospitaleak Blanca Guinea eta Begoña Alday Gorabideko Etika Batzordeko kideak gonbidatu zituen saio kliniko batera, adimen desgaitasuna duten pertsonen osasun arretari buruz hitz egin zezaten, ospitaleko etikako batzordearekin batera egindako azterlan oinarri hartuta.

Sesiones de lectura fácil en Navarra

El autogestor Federico Gil y la psicóloga Tania Pereda han ofrecido dos sesiones de formación en lectura fácil en Navarra. Una de ellas, al equipo de Feaps Navarra y la otra a profesionales del Centro de Recursos de Educación Especial de Navarra. En ambos seminarios participaron 100 personas.

Irakurketa errazeko saioak Nafarroan

Federico Gil autogestoreak eta Tania Pereda psikologoak irakurketa errazari buruzko bi prestakuntza saio eman dituzte Nafarroan: bata, Feapsek Nafarroan duen taldeari; bestea, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko profesionalei. Bi mintegietan 100 pertsonak parte hartu zuten.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a dar apoyo a las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y a sus familias, con la misión de mejorar su calidad de vida desde un compromiso ético y promoviendo una sociedad más justa y solidaria.

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, eta helburu du Bizkaian adimen desgaitasuna dutenen eta beren familiartekoen bizi-kalitatea hobetzea, konpromiso etikoa oinarri hartuta, eta gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa sustatzen.



La asamblea de socios y socias se celebrará el miércoles 24 de abril

La Asamblea General de socios y socias de Gorabide se celebrará el **miércoles 24 de abril**, a las siete de la tarde, en el Colegio de los Padres Jesuitas de Indautxu de Bilbao (entrada por Dr. Areilza nº 32). En el transcurso de la asamblea, se someterá al voto de los socios y las socias la gestión y el estado financiero de 2012, el plan de actuación y presupuesto para 2013, las cuotas para 2014, así como la renovación de la Junta Directiva, y se informará de la actuación y gestión de Lantegi Batuak y Futubide (Fundación Tutelar Gorabide).

Bazkideen batzarra apirilaren 24an, asteazkena, izango da

Gorabideko Bazkideen Batzar Nagusia **apirilaren 24an, asteazkena**, egingo da, arratsaldeko zazpitan, Bilboko Indautxuko Jesuiten Ikastetxean (sarrera Areilza Doktorearen 32 zenbakitik). Bileran, bazkideek 2012ko finantza kudeaketa eta egoera, 2013ko jardura-plana eta aurrekontua, 2014rako kuotak eta Zuzendaritza Batzordearen berritzea bozkatzeko jarriko da, eta Lantegi Batuak eta Futubide (Gorabide Tutoretzako Fundazioa) fundazioetako jardura eta kudeaketaren berri emango da.

agenda abril apirila



FORMACIÓN FAMILIAR FAMILIEN PRESTAKUNTZA

FAMILIAS DE ESCOLARES ESKOLA-UMEETAKO FAMILIAK

Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao
Día 30 martes **Hora** 18:30
Eguna asteartea **Ordua**

FAMILIAS DE ADOLESCENTES NERABEETAKO FAMILIAK

Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao
Día 29 lunes **Hora** 18:30
Eguna astelehena **Ordua**

FAMILIAS DE JÓVENES GAZTEETAKO FAMILIAK

Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao
Día 11 jueves **Hora** 18:30
Eguna osteguna **Ordua**

FAMILIAS DE ADULTOS/AS HELDUETAKO FAMILIAK

Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao
Día 25 jueves **Hora** 18:30
Eguna osteguna **Ordua**

AUTOGESTORES AUTOGESTOREAK

JÓVENES | GAZTEAK

Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)
Día 9 martes **Hora** 18:00
Eguna asteartea **Ordua**

LOS VETERANOS

Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)
Día 17 miércoles **Hora** 18:00
Eguna asteazkena **Ordua**

LOS ELEGANTES

Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)
Día 24 miércoles **Hora** 18:30
Eguna asteazkena **Ordua**

GURE AHOTSA

Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)
Día 10 miércoles **Hora** 18:30
Eguna asteazkena **Ordua**

AGRUPACIONES ELKARTEAK

DEUSTO-SAN IGNACIO Junta Batzorde

Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto
Día 9 martes **Hora** 19:30
Eguna asteartea **Ordua**

ERMUA Junta Batzorde

Aldapa, 2-bajo A/ etxabe A - Ermua
Día 8 lunes **Hora** 19:30
Eguna astelehena **Ordua**

MUNGIALDEA Comisión Komisio

Atxurizubi, 12 - Mungia
Día 9 martes **Hora** 20:00
Eguna asteartea **Ordua**

SANTURTZI Comisión Komisio

Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi
Día 24 miércoles **Hora** 19:00
Eguna asteazkena **Ordua**



CONVOCATORIA DE ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA

La Junta Directiva de GORABIDE (asociación vizcaína en favor de las personas con discapacidad intelectual), convoca **ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE SOCIOS Y SOCIAS**, el **MIÉRCOLES 24 DE ABRIL de 2013, a las 19 horas**, en la sala de conferencias del Colegio de los Padres Jesuitas de Indautxu, situado en la calle **Dr. Areilza, nº 32**, de Bilbao, en segunda convocatoria, al ser previsible que no pueda celebrarse en primera, que también queda convocada por el presente anuncio una hora antes.

ORDEN DEL DÍA

1. Lectura, a efectos informativos, del acta aprobada en la asamblea anterior.
2. Informe del presidente:
 - 2.1. Análisis y aprobación, en su caso, del plan de actuación de la asociación y gestión de la Junta Directiva en el año 2012.
 - 2.2. Análisis y aprobación, en su caso, del estado financiero del año 2012.
3. Aprobación del Plan de Actuación para el año 2013.
 - 3.1. Exposición por parte del presidente.
 - 3.2. Presupuesto para el año 2013.
4. Actualización de las cuotas para el año 2014.
5. Resumen, a título informativo, de actuación y gestión de:
 - 5.1. Lantegi Batuak.
 - 5.2. Futubide (Fundación Tutelar Gorabide).
6. Renovación de la Junta Directiva de Gorabide.
7. Ruegos y preguntas.

NOTA: La documentación que se presentará en la asamblea está a disposición de los socios y las socias que deseen examinarla en las oficinas de nuestra asociación, calle Licenciado Poza nº 14, 2º, de Bilbao, a partir del 8 de abril de 2013.

OHIKO BATZAR NAGUSIETARAKO DEIA

GORABIDE adimen ezintasuna duten pertsonen Bizkaiko elkarteko Zuzendaritza Batzordeak **BAZKIDEEN OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIA** egiten du. Batzarra **2013eko APIRILAREN 24an, ASTEAZKENA, 19:00etan** izango da, Indautxuko Jesuiten Ikastetxean, Bilboko **Areiltza Doktorea, 32.** zenbakian, bigarren deialdian. Lehenengo deia ordubete lehenagorako egiten da honen bidez, baina seguru asko batzarra ezin izango da lehenengo deialdian egin.

GAI ZERRENDA

1. Aurreko batzarrean onartutako akta irakurtzea, informatzeko.
2. Presidenteak berriak ematea:
 - 2.1. Elkartearen 2012ko ekintza plana eta Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa aztertzea eta onartzea.
 - 2.2. 2012ko finantza egoera aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
3. 2013 urterako ekintza plana onartzea.
 - 3.1. Presidentearen azalpena.
 - 3.2. 2013 urterako aurrekontua.
4. 2014 urterako kuotak eguneratzea.
5. Honako hauen jardunbidearen eta kudeaketaren informazioa ematea:
 - 5.1. Lantegi Batuak.
 - 5.2. Futubide (Tutoretzarako Gorabide Fundazioa).
6. Gorabideko Zuzendaritza Batzordea berritzea.
7. Galderak eta eskaerak.

OHARRA: Batzarrean aurkeztuko diren dokumentuak aurretiaz irakurri nahi dituzten bazkideek eskuragarri dituzte gure elkartearen bulegoetan, Poza Lizentziatuaren kalea, 14-2. pisua, Bilbon, 2013eko apirilaren 8tik aurrera.